

## 2021eko laborantzako praktika ekologikoen lehiaketa Izen-emaiteak idekiak dira !



Lehiaketak laborantzako praktika ekologikoak plantan ezartzen dituzten laborari batzu saristatzen ditu, urte guziz. Halaber, laborariek beren ingurumenari buruz egiten duten lanaren ezagutza kolektibo eta indibiduala da.

### **Berrikuntza ! Agro-oihangintza lehiaketan sartzen da.**

Bi sail proposatuak dira :

- **Pentze & alhabideak** : hazleek bazkarentzat edo alharentzat erabiliak diren pentze naturaletan plantan ezartzen dituzten praktika agro-ekologikoen ebaluazioa. Artalde eta tropen bazkatzeko hazkurri ekarpena ere begiratua da.
- **Agro-oihangintza** : laborariek etxaldean plantan ezarri duten agro-oihangintza sistemaren eta heien laborantza praktiketan integrazteko gaitasunaren ebaluazioa.

Edozoin laborari nahaintek lehiaketa huntan parte hartzen ahal dute, indibidualki. Artzain elkarteek, AFP elkarteek eta bortu kudeatzaileek ere Euskal mendiko Natura 2000 guneetan kokatuak diren pentze, larre eta bortuko alhabideak aurkezten ahal dituzte.

Tokiko antolakuntzaz arduratzen dira : Garaziko mendi sindikata, Baigorriko baleako mendi sindikata, Euskal hirigunea, Ühaitzako sindikata eta Euskal Herriko Laborantza Ganbara. Ekitaldia **Ipar Euskal Herriko zazpi Natura 2000 guneetan<sup>1</sup> iragaiten da.**

Epaimahai batek lur pezak bisitatuko ditu :

- Pentzeak **maiatzaren 20 edo 27an**, ostegunetz
- Alhabideak **ekainaren 11 edo 18an**, ostiralez
- Agro-oihangintzan diren pezak, **larrazkenean**

Oroitarazten dizuegu Cédric Carricaburu Ezterenzubiko laboraria zela jazko irabazlea.

### **KONTAKTUAK/IZEN EMAITEA**

- **Pentze & Alhabideak** : Guillaume Cavaillès, 06 89 72 54 14
- **Agro-oihangintza** : Thomas Tchiboukdjian, 07 82 94 86 77

1- Ühaitza, Errobi, Urdazuri, Larrun eta Xoldokogaina mendiguneak, Mondarrain eta Artzamendi mendiguneak, Garaziko mendiak eta Aldudeko mendiak.